

# Errenteria

HERRI BIZIA 

**MERKATARITZA ETA OSTALARITZA,  
ERRONKAZ BETETAKO ZERBITZUAK**  
*Comercio y hostelería, servicios llenos de retos*



Energia  
kontsumoa

3. ORR. >>

Argazkiak

6. ORR. >>

Herri Bizia

8. ORR. >>

Herriko  
merkataritza  
eta ostalaritza

12. ORR. >>

Errenteria  
Bizia

15. ORR. >>

Azpisailaren helburua da energiarekin zerikusia duten gaietan udalaren eta udalerriko beste hainbat eragileren jarduna ahalik eta modu jasangarrienean gauzatzea

El objetivo de la subárea es que las actividades del ayuntamiento y otras entidades del municipio relativas a la energía se lleven a cabo del modo más sostenible posible

## Jarduera eremuak / Ámbitos de actuación



**Konzientziazio ekimenak**  
*Actividades de concienciación*

**Energia Astea:** Banakoentzako, enpresentzako eta erakundeentzako esperientziak, produktuak eta abarrekoak ezagutzeko aukera. 2019. urtean hirugarren aldia egin da.

**Semana de la Energía:** Ofrece la oportunidad de conocer experiencias, productos y similares a las personas individuales, empresas e instituciones. En 2019 se ha celebrado la tercera edición.



**Udal kudeaketa**  
*Gestión municipal*

Udal energia kontsumoaren azterketa, murrizketa, efizientzia neurriak eta energia berriztagarriak ezartzea.

*Estudio, disminución e implementación de energías renovables y medidas de eficiencia en lo relativo al consumo energético municipal.*

2015-2018 epean fakturaren murrizketa:

**200.000 €**

*de reducción en la factura en el periodo 2015-2018*



**Eragileekin harremanak**  
*Relaciones con otros agentes*

**Energiaren Mahaia:** herriko hainbat auzo elkartek, energiaren alorreko enpresak eta udalak osatzen dute.

**Mesa de la Energía:** la conforman varias asociaciones vecinales, empresas del sector energético y el propio ayuntamiento.

**Alkateen Ituna:** berotegi efektuko gasen isurketa 2020 urterako %20 murrizteko asmoz, Europako 7.755 alkatek sinaturiko konpromiso multzoa.

**Pacto de Alcaldes y Alcaldesas:** conjunto de compromisos suscritos para reducir en un 20 % la emisión de los gases de efecto invernadero para 2020.



# Aurrezpena energia denean

*Erreterriako Udala inbertsioak egiten ari da energia kontsumoa murrizteko eta eraginkortasun handiagoa izateko. Dirua aurrezteaz gain, gutxiago kutsatzeko neurriak dira. Autokontsumoaren bidea ere urratzen ari da.*

**Z**ientzialariak ados dira: munduko tenperatura igotzen ari da. Klima Aldaketari Buruzko Gobernu Arteko Taldeak (IPPC, ingelesez) frogatuta duenez, urtero CO<sub>2</sub> emisioak gora egiten ari dira, eta XX. mendearen hasieratik planetaren tenperaturak 1,1 gradu egin ditu gora. Pariseko Akordioaren arabera, 2100 urterako bi gradutara mugatu behar da.

## «El ahorro energético no solo beneficia económicamente, sino también al medio ambiente»

Errenterian klima aldaketara egokitzeke plana osatu du udalak. «Egokitu» hitza erabili eta ez «aurre egin»; aurreikuspenak egingo dituzte klima aldaketari nola aurre egin zehazteko, ekidinezina delako. Compact of Mayors, edo Alkateen Itunean, hartutako konpromisoak aurrera eramaten ari dira. Energia asko xahutzen da, eta horregatik, neurriak hartzen ari da Errenteriako Udala.

Horretan ari dira, adibidez, hainbat udal eraikinetan. Erakundearen jabetzako garajeetan zein kiroldegietan LED argiak jarri dituzte, eta Helduentzako Hezkuntza Iraunkorrak eta Udal Euskaltegiak partekatzen duten eraikinean ere jarriko dituzte (biomasa galdara bat ere instalatu dute bertan). Pixkanaka ari dira horretan, aitortu dutenez.

Hala ere, eraginkortasun handiagoa duen argiteria mota hori ez da eraikinen barnealdera mugatuko. Kaleko argiak aldatu dituzte hainbat auzotan, maiatzean bukatu dute oraingo urratsa. Hala, kale argiteriaren %43 LED motakoa da. Guztira 4.500 dira.

Energia Dibertsifikazio eta Aurrezte Institutuaren bi kreditu jaso ditu udalak argiteria aldatzeko, hamar urtetan ordaintzekoak eta zero interesean. Epe horretan amortizatuko da egindako inbertsioa.

Argiterian bertan egindako aldaketa horiei esker, bi arlotan hobekuntzak lortu dira. Alde batetik, ekologikoki, CO2 emisioa jaitea lortu delako. Bestetik, eraginkortasunean: 1.459.562 eurotik 1.211.327 eurora jaitsi da faktura elektrikoa 2015-2018 tartean, prezioa argiaren abiadan igotzen ari den momentuan.

### Argiteriaz harago

Argiteriari dagokionaz gain, beste hainbat neurri hartzen ari da Errenteriako Udala. Horrela, auto-kontsumoaren bidea urratzen hasi dira. Galtzarabordako kiroldegian eguzki plaka fotovoltaikoak jarri dituzte, eta urtean 10.000 kilowatt-ordu energia sortzen ditu.

Lizan ere, energia kopuru handia xahutzen duten eraikinak dira kiroldegiak. Ildo horretan, Fanderiako kiroldegian 150.000 euroko inbertsioa egin dute klimatizagailu berri bat jartzeko, eta horrek ere aurrezteko modua emango du: legeak aginduta, igerilekuko uraren ehuneko zehatz bat bota behar da, eta gailu horrek energia xurgatzen dio urari.

Ikastetxe publikoetan beste lau instalazio fotovoltaiko dituzte, eta hiri mantenuko biltegian dago handiena: 40 kilowatt-orduko potentzia sortzen du urteko. Lekuona eraikinaren teilatuan joango da beste bat, 36koa. Lehen egindako lanari beste bultzada bat emango dio udalak, eta 106 kilowatt-ordukora iritsiko dira. «Berriztagarriena egin behar den bide bat da», adierazi du dute udal arduradunek. «Pasa den udazkenean Eguzkiaren Zerga deitzen zitzaiona kendu zuten, eta orain gainekoizpena nola arautuko den aztertzen ari dira». Energia soberan sortzen zutenek enpresei oparitu egiten zieten lehen.

Bestalde, udalak bere jabetzan bi ibilgailu hibrido ditu. Bat udaltzainena da, eta bestea hiri mantenuko langileena. Gainera, bi bizikleta elektriko dituzte: bata udaltzainena eta bestea udal langileentzako, inspektzioak eta bestelakoak egiteko.

## «Gracias a las inversiones, la factura de la luz ha descendido en casi 250.000 euros»

Energía Iraunkorrekoko Ekintza Plana 2015ean onartu zen. 2017ko erreferentzia oinarritzat hartuta, helburua da 2020rako %20ko murrizketa egitea udalerrri guztian, ez udal instalazioetan bakarrik. Anbizio handiko plana dela nabarmentu du udalak, eta horregatik hartu dituzte lehen azaldutako neurriak. Aitortu dute alor batzuetan beste batzuetan baino hobeto daudela, eta gabezia, mugikortasunean badagoela. Eraikinetan, leihoak aldatu dituzte, beroa hobeto mantentzeko, baita eraikinen euren estaldurak ere bai.

Nolabaiteko inbertsioa eta azpiegitura behar duten ekintzak dira. Baina badaude, egunerokoan, herritarrek egin ditzaketen keinuak. Izan ere, ohituren aldaketa-

ri garrantzia ematen dio udalak: dutxan denbora gutxiago ematea; argia behar ez denean itzaltzea; leihoak ixtea; etxean termostato bat jartzea...

Horregatik, sozializazio eta kontzientziazio kanpainak gauzatzen ari dira. Hiru aldiz ospatu dute Energiaren Astea. «Gauza asko gure eskuduntzatik kanpo geratzen zaizkigu, baina gure ahalegina egiten dugu horiek bultzatzen», adierazi dute.

Kontzientziazioak gaztetatik hasi behar duenez, Gamon ikastetxeak, 50/50 proiektuarekin bat egin du. Proiektu aitzindaria da Euskal Herrian, eta eskualdeko beste hiru udalerrietako ikastetxe publikoek bat egin dute. Ikasturtean zehar aurreztu den energiaren %50 ikastetxeari itzuliko diote dirutan, eta haiek erabakiko dute zertan inbertitu. Beste erdia udalak erabiliko du energia aurrezteko eta eraginkorragoak izateko hobekuntzetan. Ikasleek eurek erabakitze ahalmena izango dute.

Den-dena beharrezkoa izango da planeta salbatzeko bidean, baita keinurik txikiena ere.

## AYUDAS PARA PARTICULARES

Últimamente se están multiplicando los andamios en las calles de la villa, en muchos casos con el objetivo de rehabilitar las fachadas. Y no es casual: la agencia de desarrollo comarcal Oarsoaldea está tramitando las ayudas económicas que ofrece el Gobierno Vasco para llevar a cabo rehabilitaciones energéticas.

Se denomina así a las obras que tienen como objetivo el ahorro energético, sobre todo el aislamiento de fachadas y tejados. El proyecto tiene que estar redactado por un arquitecto, debe de cumplir la normativa actual y también las específicas que el Gobierno Vasco establece.

En el momento de calcular las ayudas, Oarsoaldea tendrá en cuenta las siguientes cantidades: el presupuesto de las empresas de rehabilitación y los honorarios del personal técnico, en ambos casos sin considerar el IVA, más las que se abonan en el Ayuntamiento por la obra. Es imprescindible solicitar las ayudas siempre antes de iniciar la obra.

De los documentos a presentar, los que más tiempo llevan y que conviene ir adelantando su redacción, son los siguientes: por un lado, los presupuestos de las empresas —tres, en caso de que la obra supere los 40.000 euros...; por otro lado, la Inspección Técnica del Edificio; y el tercer documento será el proyecto de obra redactado por un arquitecto.

La ayuda a comunidades de propietarios será del 30% del presupuesto, hasta un máximo de 30.000 euros. Para ello, al menos un propietario tendrá que tener un gasto superior a los mil euros, y el indicador M2 que calcula el arquitecto será igual o superior a cero.

A la ayuda a la comunidad le podemos sumar las ayudas individuales, siempre que sea vivienda habitual. Puede suponer una desgravación del 18%. Se puede solicitar un préstamo si los ingresos anuales son menores a 33.000 euros. La ayuda, cuando los ingresos anuales sean menores de 21.000 euros, ascendería a entre el 10% y el 25%. En el caso del Casco Histórico, Iztieta-Ondartxo, Galtzaraborda y Gaztaño, podrían ascender a entre 25% y 40%.

Para más información, se puede escribir a: [birgaitzezerbitzua@oarsoaldea.eus](mailto:birgaitzezerbitzua@oarsoaldea.eus) o llamar al 943 344 160.

Dantzari Txiki Eguna



Euskal Eskola Publikoaren Jaia



# Herri Bizia

San Markoko erromeria



Sagardo Eguna





ia iruditan

Munduko Arrozak



Homofobiaren Kontrako Zebrabidea





infórmate del día a día en  
herriko egunerokotasunaren  
berri izateko



**HERRI BIZIA**  
herribizia.errenteria.eus

## **Pertsonaletik, historiara**

Xenpelar Etxeak eta Reina  
Aretoak, hurrenez hurren,  
'Urperatuak, 1900-1975' eta  
Ibai Maritxalarren 'Txakurrak  
euripean' erakusketak jaso  
zituzten urte hasieran,  
publiko-arrakasta handiz



## **Por un pueblo seguro**

Todos los partidos políticos del  
Ayuntamiento han unido sus fuerzas  
para que la ciudadanía conviva sin  
violencia



## **Mucho más que una canción**

'Egin zaidazu bisita' es una  
invitación a la inclusión en un pueblo  
multicultural. Puedes verlo en [https://  
herribizia.errenteria.eus/bisita/](https://herribizia.errenteria.eus/bisita/)







## Herria ezagutu, era dibertigarrian

Udalak hiru orientazio mapa berri egin ditu, Alaberga, Galtzaraborda eta Beraun auzoak pista bidez eta jarduera mental eta fisikoak uztartuz, hobeto ezagutzeko



## Planto para no dejar de avanzar

Las mujeres de Erreterria han puesto sus vidas en el centro el 8 de Marzo, y Emakumeen Etxea ha abierto sus puertas



## Ikerketa lan sakona, oroimenaren bidean

'Erreterria 1936-1945: Giza Eskubideen zapalketa eta errepresioa Gerra Zibilean eta Lehen Frankismoan' hiru liburuko bilduma banatu du herritarren artean udalak, frankismoko biktimei egia eskaintzeko





## ***Maiatzaren 26ko udal hauteskundeen emaitzen ondorioz, honakoak dira agintaldi berrian Erreteriako Udalbatza osatuko duten zinegotziak.***

*En base a los resultados de las elecciones municipales del 26 de mayo, esta es la composición de la corporación municipal para la nueva legislatura.*





- 1 Garazi Lopez de Etxezarreta Auzmendi (EH Bildu)
- 2 Bernar Lemos Taberna (EH Bildu)
- 3 Jose Manuel Ferradas Freijo (Elkarrekin Podemos)
- 4 Elixabete Murua Mindeguia (EAJ-PNV)
- 5 Garbiñe Oyarbide Iruretagoiena (EAJ-PNV)
- 6 Jose Ramon Gurrutxaga Zubizarreta (EH Bildu)
- 7 Isaac Palencia Caballero (PSE-EE)
- 8 Yosleidi Ferrera Cedeño (PSE-EE)
- 9 Miren Arbelaitz García (EH Bildu)
- 10 Goizane Álvarez Irijoa (PSE-EE)
- 11 Eneko Del Amo Jimenez (EH Bildu)
- 12 Eñaut Gracia Ibarra (EH Bildu)
- 13 Iñaki Ruiz Alonso (PSE-EE)
- 14 Itziar Ostolaza Galdos (EH Bildu)
- 15 Ion Collar Rioseco (Elkarrekin Podemos)
- 16 Maite Peña López (EAJ-PNV)
- 17 Aizpea Otaegi Mitxelena (EH Bildu, **alkatea / alcaldesa**)
- 18 José Ángel Rodríguez Medina (PSE-EE)
- 19 Alazne Korta Zulaika (EH Bildu)
- 20 Joseba Echarte Martín (PSE-EE)
- 21 Maite Gartzia Ontiveros (Elkarrekin Podemos)



## Comercio, la chispa de la calle

*El comercio es uno de esas cosas que dan vida a un pueblo, ya sea con la persiana levantada —de día— o con los coloridos mostradores —al anochecer—. Sin embargo, el pequeño comercio no pasa por sus mejores momentos. En 2008 había 777 establecimientos comerciales y hosteleros activos. En 2016, ocho años más tarde, ese número había descendido hasta los 623.*

**E**n Errenkoalde, la asociación que agrupa a 95 comerciantes de Errenteria (casi un cuarto del total), se han mirado en el escaparate y han visto reflejada una cara de preocupación. Dicen que no es solo un factor el que afecta a los y las integrantes de Errenkoalde, sino a la totalidad de comerciantes. Orhi Aizpurua, Mabel Cuña y Maika Martín son asociados

de Errenkoalde y han querido mostrar sus impresiones de cómo se encuentra el sector.

Según Martín, presidenta de la asociación, una de las mayores competencias son las grandes plataformas de venta online. «No puedes competir con las tiendas on-line, que están activas las 24 horas», añade Aizpurua. Además Cuña añade que «todo el mundo admite que compra

por Amazon. Nadie está por pensar sobre lo que supone una compra en el pueblo. Eso se tiene que reflexionar a nivel político, porque va a llegar la desertización de las ciudades y los pueblos».

*«Ezin dugu online dauden dendekin lehiatu; 24 orduz daude irekita»*

Además, la llegada de las compras por Internet les hace trabajar gratis para grandes compañías. «Utilizan nuestro trabajo», se queja Cuña. «Somos el escarapate de Amazon o Aliexpress».

Por eso, piden ayuda a las instituciones, porque tienen mayor poder de influencia que una asociación de comerciantes.

## Disminución

Desde Errenkoalde aseguran que el descenso del número de comercios es una realidad palpable. «Si no hay tiendas abiertas, al final no hay iluminación por las noches, no pasea gente...», aseguran. Por eso, Cuña insiste en que habría que hacer más campañas de sensibilización: «Por ejemplo, nosotros pagamos los impuestos aquí, y esos impuestos —entre otros— se utilizan para las mejoras de tu pueblo».

Aizpurua lo ha ilustrado con otro ejemplo. Cree que quien compra en Amazon un juguete y tiene algún fallo, luego no lo cambia. «En una tienda, quizás, tú te sepas el truco de por qué no funciona. En Amazon no lo pueden hacer. Estamos en el pueblo, conoces al cliente y se lo vamos a hacer con mil amores». En su caso concreto, pone gratis los carretes a las cámaras de fotos, algo que las grandes empresas no harían. Opinan que esa cercanía es la que les daba valor pero tiende a desaparecer.

Las tiendas pequeñas, con el estímulo de los nuevos tiempos, se embarcaron en la venta a través

de Internet. «Está demostrado que on-line solo venden los grandes. Los pequeños ya lo intentamos en su época, pero no funcionó», recuerdan. Y es que, a las empresas pequeñas como las suyas les supone un gran coste. «El posicionamiento en la red, el mantenimiento de la web por un profesional...», enumera Cuña. «Es un esfuerzo que no me va a dar rentabilidad», continúa.

Si en algo están de acuerdo es que ampliar los centros comerciales no sirve para nada. Cree Martín que el consumo ha llegado al tope, que el boom del consumo ha llegado a su fin. En su caso, además, reconoce que tienen limitaciones.

En ese sentido, creen importante que el sector se junte, porque haciendo grupo es como se consiguen las cosas. Aunque, según apunta Martín, «a los comerciantes que no están adheridos a la asociación les cuesta ser parte, ya que los beneficios no son inmediatos».

Desde Errenkoalde recuerdan que ha habido reuniones de trabajo con el Ayuntamiento, y que se van a

**«Hausnarketa politikoa egin behar da, bestela kaleak basamortu bihurtuko dira»**

## TRAGO HOBEEN ZAIN

Momentu hobeak bizi izan dituen beste sektore ekonomiko bat ostalaritzarena da. Zentzetan entzun ote zaie hura bizi izan zutenei «Biteri kaletik ezin ziren autoak pasa», edo «Zumardia goraino egoten zen».

Ostalari elkartean daude Javier Garcia, Fernan Cuellar, Aritz Prades eta Nacho Simon. Tabernen egoerari buruzko hausnarketa egin dutela jakinarazi dute, eta bat datoz ohiturak asko aldatu direla esatean. Pradesen ustez, ostalariek begirada gehiago dute iraganean etorkizunean baino, eta Cuellarrek gaineratu du etor daitekeenaren zain daudela.

Ohitura aldaketa horietako batzuk zerrendatu dituzte. Garciak, adibidez, esan du industria herrian indartsu zegoen garaian langileek lan txandetatik atera eta poteoa egiten zutela. Pradesek, bere aldetik, nabarmendu du orain aisialdian jende askok etxean serieak eta filmak ikusten dituela. «Gu ez gara gai ohitura horiek aldatzeko. Beraz, gu moldatu behar gara», onartu du Simonek.

Lehen baino taberna gutxiago daudela azaleratu du, gainera: «Lehen, zerbait ongi zihoanean, jendeak azkar asko egiten zuen bat, eta taberna irekitzen zuen. Orain, egia esan, ez dago hainbesteko eskaririk». Beren eskaintza moldatzen jakin behar dutela gaineratu du, eta horren eredu dela dagoen terraza kopuru handia.

Aitortu dute, eguzki pixka batekin, jendeak beste herrietara alde egiten duela, nahiz eta kontsumoa garestiagoa den. Horregatik, errenteriarak hemen geratzea ez ezik, kanpoko jendea erakartzeko aukerak ikertu nahi dituzte: turismoa baino, kultura izan daiteke indargunea. «Sektore bat osasuntsu badago, lanpostuak sortuko ditu», gaineratu dute.



**MAIKA MARTIN**

*«Ezin gara plataforma handiekin lehiatu».*



**MABEL CUÑA**

*«Todo el mundo admite que compra por Amazon. Nadie está por pensar sobre lo que supone una compra en el pueblo».*



**ORHI AIZPURUA**

*«Herrian gaude, eta jendea ezagutzen dugu».*



**MOHAMED EL MOHAMMADI BOUSSAID**

*«Guri ongi dihoakigu oraingoz».*



**MALIK IKHLAQ**

*«Herrian erosteko inizatibak egin behar dira».*

tomar medidas a través del PERCO (Plan Especial de Revitalización Comercial): «El Ayuntamiento lo ve, y es cuestión de experimentar», ha añadido Cuña.

Aizpurua, Cuña y Martín repasan las medidas que se han tomado en en diversos lugares: aparcamiento disuasorio gratis como en Baiona; el bono de de 30 euros que llegó a dar el Gobierno Vasco; la hora gratuita de aparcamiento que sufraga Errenkoalde... Así han surgido iniciativas como Merkabono. Cualquier iniciativa es buena para reflotar uno de los pilares que da vida a la villa.

No todos los comerciantes están unidos a Errenkoalde. Mohamed El Mohammed Boussaid regenta una canicería halal en la calle Donostia. Lleva 16 años ahí: «A nosotros nos va bien, mientras nos dé para gastos y para comer. Estamos contentos con la gente del barrio; llevo 16 años aquí y viene gente de toda procedencia. Ya tenemos confianza con todos, lo que al principio no fue fácil».

Quien nota mayor diferencia es Malik Ikhlaq, de Viteri Móviles. Dice que «igual me equivoco, pero creo que antes de peatonalizar la calle había mayor tránsito». Tiene otra tienda en Lasarte-Oria, y conoce las iniciativas de allí a favor de comprar en el pueblo. «Es una buena señal para que la gente se anime y compre. Hoy en día hay tanta competencia con Internet... no tenemos cómo competir».

Por último, Cuña reivindica el papel que tiene su sector tanto en el paisaje urbano como en la vida misma: «Tendríamos que pensar si el modelo de ciudad que hemos conocido hasta ahora es válido o no, y qué papel jugamos nosotros ahí. Dinamizamos la vida en la ciudad; pagamos nuestros impuestos; creamos en la medida de nuestras posibilidades empleo...».



## Ba al zenekien...

### Erreterian **549** *establezimendu* daudela?

Erreterian, orotara, komertzioko eta ostalaritzako **549** establezimendu daude EUSTAT Euskal Estatistika Erakundeak 2018 urtea bukatzerakoan zituen datuen arabera. Askotarikoak, gainera. Halá, denden sektoreari dagokionez, **414** establezimendu daude: horietatik gehienak arropa saltokiak dira (**71**), eta jarraian okindegi-gozotegien alorrekoak daude (**48**), orotarikoak saltzen dituzten denden edo supermerkatuen (**32**), nahiz harategi-urdaitegien aurretik (**27** gune). Ostalaritzan, tabernak gehiago, **135** gunekin; jatetxeak **33** dira, prestatutako jakiak saltzen dituztenak **7**, eta bestelako jakien zerbitzua ematen dutenak, **2**.

## Argazki zaharra

Erreteria siempre ha tenido un comercio vivo, variado y rico en oferta. No sólo ha ayudado a crear empleo, también ha dado vida a las calles de la villa. Además, siendo cabecera de comarca, ha sido un referente no sólo para los erreteriarra, sino para los y las habitantes de Oarsoaldea y alrededores. Gran parte de la riqueza comercial de nuestro pueblo se ha sustentado en los tradicionales mercados, dedicados sobre todo a la venta de alimentos. En esta imagen de marzo de 1960, posan con gran desparpajo, alegres, las pescateras que tenían puesto en el antiguo mercado (hoy en día Merkatuzar).



## Txoko bat

Aitzetako Txabala dolmena Txoritokietako Estazio Megalitikoan dago, San Markotik ez oso urrun. 120 bat metrora duen Aitzeta baseritik datorkio izena. Adolfo Leibarrek eta Jesus Elozegik aurkitu zuten 1962an, eta Jose Migel Barandiaranek induskatu zuen 1963an. Txoritokietako Estazio Megalitikoaren zati da, zutarri batekin, beste hiru dolmenekin eta hainbat cromlechekin batera. 0,80 metroko altuera du, eta lau harlosaz eta estalkiaz dago osatua. San Marko edo Txoritokieta aldera mendi-bira egiterakoan, ezinbestean bisitatu beharreko tokia da. Neolito arokoa da, kristo aurreko 6000 eta 3000 urteen artekoa.



Udaldia, irailaren 8ra arte  
Temporada de verano, hasta el 8 de septiembre

## GALTZARABORDA UDAL KIROLDEGIA

Polideportivo Municipal Galtzaraborda  
Telf.: 943 449 690

Lanegunak / Laborables:	06:30 – 22:00
Larunbatak / Sábados:	08:00 – 22:00
Igande eta jaiegunak: Domingos y festivos	08:00 – 14:00
Itxita:	Uztailak 22 eta abuztuak 1-15
Cerrado:	El 22 de julio y del 1 al 15 de agosto

## FANDERIA UDAL IGERILEKUA

Piscinas Municipales Fanderia  
Telf.: 943 344 423

Egunero / Todos los días:	09:00 – 22:00
Itxita:	Uztailak 22
Cerrado:	El 22 de julio

## BERAUNGO UDAL IGERILEKUAK

Piscinas municipales de Beraun  
Telf.: 943 449 648

Egunero abuztuaren 31ra arte: Todos los días hasta el 31 de agosto:	10:30 – 21:00
Irailaren 1etik 8ra: Septiembre, del 1 al 8:	10:30 – 20:30
Itxita:	Uztailak 22
Cerrado:	El 22 de julio

# Udal kirol instalazioak

## INSTALACIONES DEPORTIVAS MUNICIPALES



Aldizkari honen hurrengo zenbakiak herritik kanpo bizi den errenteriarren batek jasotzea nahi baduzu bete ezazu beheko formularioa. Si quieres que alguna o algún errenteriarra que viva fuera reciba los siguientes números de la revista háznos llegar sus datos rellenando el formulario:

Izena Nombre \_\_\_\_\_

Helbide osoa Dirección completa \_\_\_\_\_



Errenteriako Udala

Entrega ezazu kupoia udaletxean edo jarri gurekin harremanetan [herribizia@errenteria.eus](mailto:herribizia@errenteria.eus) edo 943-44 96 00 telefonoan.  
Entrega este cupón en el ayuntamiento o ponte en contacto con nosotros a través de [herribizia@errenteria.eus](mailto:herribizia@errenteria.eus) o el teléfono 943-44 96 00.